

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Irargariak

### IDAZKARITZA NAGUSIA

**Foru Gobernu Kontseiluak 2020ko martxoaren 17ko ohiko bilkuran onartutako ebazpen laburpena**

– Erabakiak:

#### DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 154/2020 Erabakia, martxoaren 17koa. Onestea Arabako Foru Aldundiko bi zuzendaritzatako titularren bateragarritasunari buruzko adierazpena.

Foru Gobernu Kontseiluaren 155/2020 Erabakia, martxoaren 17koa. Onestea larrialdi deklarazioa, kontratazio prozeduretan COVID-19ari aurre egiteko neurriak hartzetik eratorritako premiei erantzuteko.

Foru Gobernu Kontseiluaren 156/2020 Erabakia, martxoaren 17koa. Onestea Arabako Nahitaezko Desjabetzeen Lurralde Epaimahaiko kideen izendapena.

#### ENPLEGU, MERKATARITZA ETATURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 157/2020 Erabakia, martxoaren 17koa. Onestea Iberdrola Clientes SAU enpresari kontratua esleitzea, atxikitako erakundeen instalazioei energia berriztagarrien edo eraginkortasun handiko kogenerazioaren bidez sortutako energia elektrikoa 2020ko apirilaren 1etik 2022ko apirilaren 1era bitartean hornitzeko esparru akordioan oinarrituta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 158/2020 Erabakia, martxoaren 17koa. Onestea berokuntzako C gasolioaren hornidura "Beroil SL" enpresari 2020ko ekitaldirako 5.000 eurotan (BEZa barne) esleitzen dion esparru akordioan oinarritutako kontratua aldatzea.

#### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 159/2020 Erabakia, martxoaren 17koa. Onestea Arabako Foru Sektore Publikoaren dirulaguntzen plan estrategikoa 2020-2022 aldirako, zeina Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 27ko 840/2019 Erabakiaren bidez onartu baitzen.

Foru Gobernu Kontseiluaren 160/2020 Erabakia, martxoaren 17koa. Onestea 2019rako luzatutako 2018ko aurrekontu aldaketei buruzko zenbait espediente, kreditu handitzeari buruzkoak.

Foru Gobernu Kontseiluaren 161/2020 Erabakia, martxoaren 17koa. Onespina ematea Kontuhartzaitza eta Kontrol Zerbitzuetik eragozpen txostenak jaso dituzten zenbait ekintza burutu baliozkotzeari.

#### LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 162/2020 Erabakia, martxoaren 17koa. Onespina ematea Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsaren azken likidazioan lorturiko zenbatekoak aplikatzeari finantzaketa lerrotik datozen funtsen aurretiazko amortizazioari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 163/2020 Erabakia, martxoaren 17koa. Onestea Arabako Foru Suhiltzaileak erakunde autonomoko lanpostuen zerrenda aldatzea.

#### BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 164/2020 Erabakia, martxoaren 17koa. Onespena ematea honi: "A-625 errepidea 357,30 KPtik 354,22 KPra (Bizkaiko muga) egokitzeko eraikuntza proiektu aldatua eta haren 1.146.133,37 euroko aurrekontua (BEZa barne)" proiektuak eragindako "Tubacexeko T-11-SE tartearen aldaketa; hau da, Tubos 2-Tubacex-eko L/220 kV 1/T tutuen T zirkuitu bikoitzaren Tubacexeko T-11-SE tartearen aldaketa.

#### EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 165/2020 Erabakia, martxoaren 17koa. Onestea Arabako Kirol Federazioen Elkartearekin jarduerak egiteko izenpetutako lankidetzaren hitzarmena, eta Arabako Foru Aldundiaren ekarpena 2020rako.

#### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 166/2020 Erabakia, martxoaren 17koa. Onespena ematea Traeco Medioambiental SL enpresari esleitu zitzaion Arabako garbiguneen (4. lotea: Dulantziko garbigunea) sarearen kudeaketa zerbitzuaren behin betiko likidazioari, eta zerbitzu horri erantzuteko jarritako bermea itzultzeari.